

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Bilboko Udala**

Iragarkia, Bilboko Udalarena, Administrarien 28 plaza, horietatik 25 derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak, lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu eta hautaketa-prozesurako deialdia egin da.

Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkariak, Alkatetzaren 2019ko ekainaren 15ko Ebazpenaren bidez eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 15ko erabakiaren bidez emandako ahalmenak baliatuz, hau xedatu du 2022ko maiatzaren 2ko Ebazpenaren bidez:

«*Lehenengoa:* Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeari erantsitako 127. artikuluan eta Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 15ean hartutako erabakian ezarritakoarekin bat etorruta, administrarien 28 plaza (C lanbide-sailkapeneko taldekoa, C1 azpitaldekoa, horietatik 25 derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak, administrazio orokorreko eskala, azpieskala administrazioa, C1 azpitaldeko ordainsariekin), 2019ko, 2020ko, 2021eko eta 2022ko lan-eskaintza publikokoak, lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz karrerako funtzionario moduan jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu ziren eta ebazpen honen eranskinean agertzen dira eta, era berean, hautaketa-prozesuaren deialdia egin da.

Bigarrena: Nahi izanez gero, Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean, Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasita. Hori horrela da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluen arabera.»

Bilbon, 2022ko maiatzaren 2an.—Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaria



ERANSKINA

**ADMINISTRARIEN 28 PLAZA JABETZAN BETETZEKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Lehenengoa.— Deialdian eskainitako plazak**

Oinarri espezifikoko hauek, indarrean dauden oinarri orokorrekin batera, deialdi honetako hautaketa-prozesu hau arautuko dute, eta hautaketa-prozesu hau irispide askeko sistemaz egingo da, lehiaketa-oposizioaren bitartez plaza hauek betetzeko: C lanbide-sailkapeneko taldeko C-1 azpitaldeko administrarien 28 plaza, haietako 25 euskararen derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna dutenak; plazok administrazio orokorreko azpieskala administrarian integratuta daude, C-1 azpitaldeari dagozkion ordainsariak dituzte, eta 2019., 2020., 2021. eta 2022. urteetako enplegu publikoaren eskaintzetakoak dira.

Deialdi honetako plazetatik 3 (euskarazko nahitaezko 2. hizkuntza-eskakizunekoak) desgaituen txandarako gorde dira. Plaza horiek betetzeko, baldintza hauek bete behar dira: %33ko edo hortik gorako desgaitasuna izatea, hautaketa-probak gainditzea eta, eskatzen zaienean, beren desgaitasun-maila egiaztatzea eta desgaitasun hori oztopo ez dela lanpostuko betebeharrak eta eginkizunak betetzeko. Plaza horiek betetzen ez badira, ez dira txanda irekikoekin batuko.

Bilboko Udal Txit Goreneko plantillako plazak jabetzan betetzeko, deialdiaren oinarri orokorretako hamaikagarrenean ezarritakoaren arabera (BAO, 2020ko uztailaren 10ekoa, 131. zk.), deialdian eskaintzen diren plazak kopurua gehitu ahal izango da, deialdi honen ostean onetsitako enplegu publikoko eskaintzetan sartzen diren plaza hutsen arabera. Plaza-kopuruaren gehikuntza hori «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean argitaratuko da, alkate-udalburuaren ebazpen baten bidez, eta agerrarazi beharko da zenbat plazak duen esleituta derrigortasun-data hizkuntza-eskakizuna betetzean, eta, betiere, oposizioaren eta lehiaketaren faseak amaitutakoan ariketak gainditu dituzten pertsonen zerrenda argitaratu aurretik xedatu beharko da gehikuntza hori.

Bigarrena.— Betekizun espezifikokoak

Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko, betekizun hauek bete behar dira:

- Batxilergoko edo teknikariko titulua edukitzea.
- Espainiako nazionalitatea edukitzea, oinarri orokor hauetako bosgarren oinarriaren lehenengo puntuan ezarritako moduan (BAO, 2020ko uztailaren 10ekoa, 131. zk.).
- Gaitasuna: atazak egiteko gaitasun funtzionala edukitzea, eta beharrezko gaitasun psikofisikoa eta gaitasun edo desgaitasunaren bateragarritasuna edukitzea deialdiko plazei dagokien lanpostuko eginkizun eta atazak normaltasunez betetzeko; gaitasun hori udalaren zerbitzu medikoek egiaztatuko dute, oinarri orokorren hamabigarren oinarrian ezarritakoaren arabera; horretarako ez dira kontuan hartuko lanpostuetan egin beharreko egokitzapenak, zeinak egin behar baitira pertsonak lanetiko arriskuen aurrean babesteko, lan-arriskuen prebentzioari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta derrigorrezko erretiro-adinetik gorakoa ez izatea.
- Gaikuntza: diziplina-espedita bidez baztertuta ez izatea ezein administrazio publikotako zerbitzutik edo ezein autonomia-erkidegotako konstituzio- edo estatutu-organismoetako zerbitzutik; era berean, ebazpen judizial bidez, erabateko desgaitasuna edo desgaitasun berezia adierazita ez izatea enplegu edo kargu publikoak betetzeko, edo funtzionarioen kidegoetan edo eskaletan sartzeko.

Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, ez egotea desgaituta edo pareko egoera batean, eta ez egotea dagokion estatuan baldintza beretan enplegu publikoak betetzea eragozten duen diziplina-zehapenaren mende edo pareko egoera baten mende.



- f) Ez egotea desgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik, zeina ezarrita baitago administrazio publikoen zerbitzuan dauden langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera; hala ere, kargu publikoan jardun edo jarduera pribatu bateraezina egiten dutenek ez dute izango eragozpenik legezko arau horiek aipatzen duten aukera-eskubidea egikaritzeko.
- g) Tasak: azterketa-eskubideengatik tasa ordainduta izatea, zeina ezarrita baitago Bilboko Udalaren dokumentuak luzatu eta emateagatik tasa arautu eta indarrean dagoen ordenantza fiskalean.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago bete beharko dituzte betekizun guztiak. Era berean, betekizun guztiok beteta eduki beharko dira hautaketa-prozesuan zehar izendapena egin arte, salbu eta c) apartatua gaitasun funtzionalari buruz adierazitakoa, zeina ziurtatu beharko baitute udalaren zerbitzu medikoek, betiere izangaiak praktiketako edo karrerako funtzionario izendatu baino lehen.

Aurrekoa gorabehera, hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangairen batek deialdiko betekizunak ez dituela betetzen, izangai hori baztertu egingo du, betiere interesdunari entzunaldia eman ondoren, eta egun berean horren berri emango dio hautaketa-prozesurako deialdia egin duen agintariari.

Hirugarrena. — Azterketa-eskubideak

Sei eurokoak (6,00 eurokoak) izango dira.

Zenbateko hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu ahal izango da; pasabide horretara iristeko, eskabide-orria bete behar da web-orrialde honetan: <https://ope.bilbao.eus>. Era berean, beste era honetan ere ordaindu ahal izango dira azterketa-eskubideak: barra-kodea duen eskabidearen edo ordainagiriaren kopia jaitsi eta dokumentu horretan adierazita dauden Bilboko Udalaren erakunde laguntzaileen edozein bulegotan aurkeztuta.

Era berean, telematikoak ez diren bitartekoen bidez aurkeztutako eskabideen kasuan, tasaren ordainketa Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatzeke eta Kudeatzeko Zuzendaritzara (Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001-Bilbo) bidalitako posta bidezko igorpenaz egin ahal izango da. Posta bidezko igorpenaren ziurtagiria aurkeztu beharko da oinarri hauetan erantsitako eskabide ofizialaren ereduarekin batera.

Edozelan ere, azterketa-eskubideak beti ordaindu behar dira eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Laugarrena. — Eskabideak

Eskabideak telematikoki edo paperean aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide telematikoak eredu ofizialaren arabera aurkeztu beharko dira; eredu hori web-orrialde honetan eskura daiteke: <https://ope.bilbao.eus>.

Eskabide horiek prozedura elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, zeina ezarrita baitago helbide elektroniko horretan. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko da betekizunak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla, eta, horretarako, horiek guztiak zerrenda batean jarri eta identifikatu beharko dira behar bestean; ez da aurkeztu behar ziurtagiriaren kopiarik eskabidearekin batera, zeren parte hartzeko betekizunak edo, behar izanez gero, alegatutako merezimenduak egiaztatu beharko baitira epaimahaiak edo Kultura eta Gobernantza Saileko Giza Baliabideak Antolatzeke eta Kudeatzeko Zuzendaritzak izangaiei eskatzen dienean.

Paperezko formatuan aurkezten diren eskabideak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan aurkeztu ahal izango dira. Horretarako, eskabide-eredu ofiziala erantsi zaie oinarri hauei, eta eredu ofizial hori azterketa-eskubideengatik tasa ordaintzeko posta bidezko igorpenarekin batera aurkeztu beharko da.

Eskabidea, tasa ordaindu izanaren agiriarekin batera, hogen (20) egun balioduneko epean bete beharko da; epea, berriz, deialdi honen iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizia-



lean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen. Horri dagokionez, igandeak eta jaiegunak ez ezik, larunbatak ere ez dira egun baliodunak izango.

Era berean, izangaiek onartu egiten dituzte oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak, eta,aldi berean, eskabidea aurkeztean baimena eman ahal izango dute, betiere eskabidea betetzeko behar diren agiriak telematikoki kontsultatzeko, hala nola: NAN, titulazio akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak eta beste batzuk. Baimena emanaz gero, ez da beharrezkoa izango agiri horiek aurkeztea, betiere dokumentazio hori elkarreagin kortasun informatikoaren bidez kontsultatu ahal izanez gero.

Hautaketa-prozesu honetako emaitzekin lan-poltsa bat eratuko da, zeina kudeatuko baita hura eratzeko uanean indarrean dauden Bilboko Udaleko lan-poltsak kudeatzeko irizpideen arabera, zeinak sindikatuarekin aldez aurretik negoziatuta egongo diren. Lan-poltsa hori beste administrazio edo instituzio publiko batzuen esku utzi ahal izango da, betiere arestian adierazitako erabakian ageri diren irizpideen arabera.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko uztailaren 10eko 131. zenbakian argitaratuta oinarri orokorretako hamaikagarren oinarria lan-poltsak eratzeari buruzkoa da; bada, hamaikagarren oinarri horren ondorioetarako, oinarri hauetako hautaketa-prozesuetako emaitzen arabera, izangaiek adierazi beharko dute, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean, baimenik ematen duten ala ez beren datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko: izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakar-bakarra hauxe izango da: erakunde horiek izangaiei lan-eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea; baldin eta izangaiek baimenik ematen ez badute beren-beregi, ulertuko da izangaiek ez dutela baimenik eman.

Bosgarrena. — Epaimahaia

Indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorritik eta Bilboko Udalaren plantilla-ko plazak jabetzan betetzeko oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, epaimahaian burua, idazkari bat eta gutxienez hiru kide izango dira; kide horien artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona batek egon beharko du derrigor.

Epaimahaia osatzen dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira, eta espezialitatearen printzipioan oinarritutakoa izango da; halandaze, kide guztiek deialdian eskaintzen diren plazetara iristeko eskatzen den titulazio edo maila akademiko berbera edo goragokoa eduki behar dute, eta epaimahaiaren kideen erdiek gutxienez deialdiko plazaren jakintza-arlo bereko titulazioa izan behar dute; horiek ez ezik, eta baten batek sexueta-rik batekoa ere ez dela ziurtatzen ez badu, epaimahaiko sexu bakoitzaren ordezkari %40koa izango da gutxienez.

Epaimahaiak kide bat izango du euskararen jakite-maila neurtzeko probarako; epaimahaiakide hori proba horretarako bakarrik egongo da, eta haren iritzia lehen aipatutako kideei erantsiko zaie.

Seigarrena. — Hautaketa-prozedura

Izangaiek lehiaketa-oposizioaren bidezko irispide askeko sistemaz aukeratuko dira; prozedura hauxe izango da: oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira, eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo. Prozesua osatzeko, praktikaldia egingo da.

Oinarri orokorretan xedatutakoari kalterik egin gabe, deialdi honetako behin betiko onarpenaren eta bazterketaren iragarkiaren ondorengo iragarki guztiak Udalaren iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> web-orrian argitaratuko dira.

A) Oposizio fasea

Oposizioan hiru ariketa egingo dira: lehenengo biak nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira, eta hirugarrena euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da. Ariketa hori nahitaezkoa eta baztertzaila izango da derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna duten plazen kasuan; gainerako plazetarako, borondatezkoa izango da, eta ez da baztertzaila izango.

**Lehenengo ariketa**

Nahitaezkoa eta baztertzalea. Idatziz erantzun beharko dira test-motako 100 galdera; galdera horietatik 90 bakarrik ebaluatuko dira; eta 10 ordezekoak izango dira; galderok epaimahaiak ariketa hasi aurretik zehazten duen gehieneko denboran erantzungo dira; galdera bakoitzak lau erantzun izango ditu eta bakarra izango da zuzena.

Lehenengo 15 galderak (1etik 15era bitartekoak) aurretiaz argitaratutako galdera-sortaren artetik aterako dira, eranskineko programako I. zatian (zati orokorra – 1etik 8ra bitarteko gaiak) jasotako gaietan oinarrituta.

Hurrengo 75 galderak (16tik 90era bitartekoak) epaimahaiak proposatuko ditu, II. zatian oinarrituak (zati espezifikoa – 9tik 40ra bitarteko gaiak), eta ez dira aldeztu aurretik argitaratuko.

Azken 10 galderak ordezekoak dira, eta lehenengo 90 galderetako bat baliogabetzen denean bakarrik hartuko dira kontuan. Hurrenkera zorrotzean erabiliko dira kontuan, 91tik 100era, baliogabetutako galderak gai-zerrendaren zati batekoak edo bestekoak izan.

Erantzun zuzen bakoitza puntu batekin (1,00) baloratuko da, eta okerreko erantzun bakoitzagatik 0,33 puntu (hogeita hamahiru ehunen) kenduko da; hartara, zuzenean lortu daitekeen gehieneko puntuazioa 90,00 (laurogeita hamar) puntukoa izango da, azken puntuazioko 20,00 (hogeitazero) puntu adina.

Erantzun gabeko galderak eta erantzun bikoitzak ez dira penalizatuko.

Ariketa honi 0,00tik (zerotik) 20,00 (hogeitazero) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten izangaiak berez baztertuta geratuko dira.

Bigarren ariketa

Nahitaezkoa eta baztertzalea. Idatziz erantzun beharko dira test-motako 50 galdera; galdera horietatik, 40 bakarrik ebaluatuko dira eta 10 ordezekoak izango dira; galderok epaimahaiak proposatzen dituen kasu praktikoei buruzkoak izango dira, eranskineko gaitegiko II. zatiarekin zerikusia dutenak. Epaimahaiak ariketa hasi aurretik zehazten duen gehieneko denboran erantzungo dira.

Erantzun zuzen bakoitza puntu batekin (1,00) baloratuko da eta okerreko erantzun bakoitzagatik 0,33 puntu (hogeita hamahiru ehunen) kenduko da; hartara, zuzenean lortu daitekeen gehieneko puntuazioa 40,00 (berrogeitazero) puntukoa izango da, azken puntuazioko 20,00 (hogeitazero) punturen parekoak.

Ariketa honi 0,00tik (zerotik) 20,00 (hogeitazero) puntura bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta 10,00 (hamar) puntu lortzen ez dituzten izangaiak berez baztertuta geratuko dira.

Epaimahaiak egokitzat jotzen badu, lehen bi ariketak bata bestearen atzean egin ahalko ditu, egun berean. Hala balitz, proba bien artean atsedendia egiteko aukera emango luke, egoki deritzon denboran. Kasu horretan, bigarren ariketa lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioan GAI izan diren izangaiei baino ez zaie zuzenduko eta kalifikatuko.

Hirugarren ariketa (euskarako proba)

Nahitaezkoa eta baztertzalea izango da euskarako derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna duten plazen kasuan. Gainerakoetan, ostera, borondatezkoa izango da eta ez da baztertzalea izango.

Euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitako eran; horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzioari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 99.1 artikulua.

Honako hauek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin beharko: HAEEen 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B-2 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat dutenek eta euskararen hizkuntza-eskakizuna Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta duten pertsonak. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio



beren-beregi Bilboko Udalari, hori egiaztatu dezan aipatutako erregistroan. Izangaiak ez badu baimenik ematen egiaztapen hori egiteko, dokumentazio egokia aurkeztu beharko du, epaimahaiak hala eskatzen badio.

Hizkuntza-eskakizunak apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean egiaztatu nahi dituzten izangaiak euskarako azterketa egin aurretik aurkeztu beharko dute ikasketen ziurtagiri egokia, betiere, hizkuntza-eskakizunak egiaztatua izan behar du ariketa hau egin aurretik —47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena—.

HAEEek emandako 1. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edota Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitzeko B-1 maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiriren bat dutenei, beherago adieraziko den puntuazioa emanez baloratuko zaie hizkuntza-maila, baldin eta ariketa egin aurretik maila hori dutela egiaztatu badute.

Ariketa honetan, gai edo ez gai kalifikazioa emango da, derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizuna ezarrita duten plazetarako lehiatzen diren hautagaien kasuan.

Gainerako plazen kasuan, ariketa 5,80 (bost eta laurogei) punturekin kalifikatuko da 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuz gero. HAEEek 1. hizkuntza-eskakizunaren edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria B-1 maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiriren baten bidez emandako ziurtagiriari 2,90 (bi eta laurogeita hamar) puntu emango zaizkio, betiere ariketa hau egin aurretik egiaztatu badira.

Oposizio-faseko gehieneko puntuazioa

Oposizio-fasean, euskarako frogak kontuan hartu gabe, gehienez 40,00 (berrogei) puntu ateratzen ahal izango dira.

B) *Lehiaketa-fasea*

Lehiaketa-fasea, berriz, behin oposizio-fasea amaitutakoan hasiko da, oposizio-fasea gainditu duten izangaiekin. Eskabideak aurkezteko epean alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira; epaimahaiak edo Giza Baliabideak Antolatzeke eta Kudeatzeko Zuzendaritzak Udalaren iragarki-taulan eta <https://ope.bilbao.eus> web-orrian argitaratutako iragarkian horretarako emandako epean egiaztatu beharko dira, behar bezala. Oinarri hauetan azaldutakoaren arabera baloratuko dira merezimenduak, eta ez da baloratuko bestelako merezimendurik. Inskripzio-eskabidean alegatu ez den merezimendurik ez da baloratuko, are espediente pertsonalean ageri badira ere edo dokumentazio hori Bilboko Udalaren esku badago ere. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

1. Antzinatasuna

Atal honetan gehienez 15,00 (hamabost) puntu emango dira, zehaztasun honen arabera:

- Administrariaren C taldeko, C-1 azpitaldeko plazan Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: gehienez, 10,00 (hamar) puntu, 2,50 (bi eta berrogeita hamar) puntu urteko edo 6 hilabeteko edo hortik gorako zati bakoitzeko.
- Bilboko Gobernu Batzordeak 2018ko abenduaren 26an onartutako funtzio administratiboaren Giza Baliabideen Antolaketa Planarekin bat etorritik (BAO, 6 zk., 2019/01/09koa), administrari laguntzailearen C taldeko, C-2 azpitaldeko plazan Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak: gehienez, 5,00 (bost) puntu, 1,25 (bat eta hogeita bost) puntu urteko edo 6 hilabeteko edo hortik gorako zati bakoitzeko.

2. Prestakuntza eta hizkuntzak

Atal honetan gehienez 3,00 (hiru) puntu emango dira, zehaztasun honen arabera:

- 2.1. Titulazio akademiko ofizialak, baldin eta deialdian betekizun gisa ezarrita ez badaude, eta, Administrazio eskudunak aitortuta, balio akademiko ofizialeko



tituluak luzatu ahal dituzten irakaskuntza-zentro publiko edo pribatuetako batek luzatuak badira, betiere zehaztasun honen arabera:

— Lizentziako, diplomaturako edo gradu titulua edukitzea: 2,00 (bi) puntu.

— Goi mailako LHko titulazioak: 2,00 (bi) puntu.

Unibertsitate tituluei dagokienez, Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 35. artikuluan eta Unibertsitate-ikasketen eta horien kalitatea bermatzeko prozeduraren antolaketa ezartzen duen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan araututako titulazio akademiko ofizialak bakarrik baloratuko dira.

Lanbide heziketako tituluetan, familia bakoitzeko bat baino ez da baloratuko. Titulazio baliokideak ondorio akademikoetarako hala badira bakarrik baliotsiko dira.

2.2. Gaztelania ez diren Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak jakitea baloratuko da, betiere zehaztutako mailen arabera eta taula honekin bat etorritz:

A) B-2 maila: 0,50 puntu (berrogeita hamar ehunen).

B) C-1 maila: puntu bat (1,00).

Egiaztatzen den hizkuntza bakoitzagatik, izangaiak duen jakite-mailarik altuena bakarrik puntuatuko da.

Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa

Lehiaketa-fasean lor daitezkeen puntuak, guztira, 18,00 (hamazortzi) puntu izango dira, gehienez ere.

Oposizioko azterketak amaitu eta lehiaketako merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, handitik txikira, hautaketa-prozesuaren fase biak batuta.

Zazpigarrena. — Oposizioko eta lehiaketako faseen behin betiko kalifikazioa

Hautaketa-prozesua osatzen duten ariketen edota merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du, eta zerrenda horren hurrenkera honelaxe ezarriko da: oposizio-fasea gainditu duten pertsonen lortutako puntuazioak eta, hala badagokio, lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa batuz. Pertsona horien kopurua ez da izango eskainitako plazen kopurua baino handiagoa, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 32. artikuluan arabera. Epaimahaiak izendapen-proposamena egingo du zerrenda hori alkate-udalburuari bidalitz. Aldi berean, agintari horri azken bilkuraren akta bidaliko dio, zeinean agertu beharko baitute, puntuazio-hurrenkeraren arabera, fase biak gainditu baina plazarik lortu ez duten pertsonen; pertsona horien zerrenda bakar-bakarrik erabiliko da plaza lortu dutenen arteko norbait plazaz jabetzen ez bada; zerrenda horretan egoteak ez du beste inolako eskubiderik edo igurikimenik sortzen, betiere oinarri orokorretako hamargarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz.

Lan-poltsak kudeatzeko udal araudiarekin bat etorritz, oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea kalifikatu ondoren, hautaketa-prozesua osorik gainditu ez baina gutxienez ariketa bat gainditu duten pertsonen izenak, Udalaren iragarki-taulan eta web-orrian (<https://ope.bilbao.eus>) iragarkia argitaratuz, betiere lan-poltsan sartzeko betekizunak eta merezimenduak egiaztatzen. Behin agiri guztiak egiaztatuta, zerrenda argitaratuko da leku berberetan.

Zortzigarrena. — Agiriak aurkeztea

Oinarri orokorretako hamabigarrenean ezarritakoaren arabera aurkeztuko dira agiriak.

Funtzionario izateko proposatutako izangaiak 20 eguneko epea dute, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik hasita, Udaleko Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritzan (Venezuela plaza 2, 5. solairua) hautaketa-prozesuan parte hartzeko hamabigarren oinarrian eskatzen diren egiaztagiria aurkezteko.



Izangaiak karrerako funtzionario izanez gero edozein administrazio publikotan, ez dituzte aurkeztu beharko lehenagoko izendapenerako aurkeztuta dituzten ziurtagiriak; kasu horietan, zein administrazio publikotan diren funtzionario, hark egindako ziurtagiria aurkeztu behar dute, funtzionario izatea egiaztatuz, eta orobat beren zerbitzu-orrian ageri diren gainerako inguruabarrak egiaztatuz.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak aurkeztu ez dituzten pertsonak, edo agiriak aztertuta edo osasun-azterketaren ondorioz ikusten bada eskatzen diren betekizunetako bat ez dutela betetzen, deialditik kanpo geratuko dira, eta, beraz, ezin izango dira izendatu; hori gertatuz gero, baliorik gabe geratuko dira ordu arte egindako jarduketa guztiak eta, gainera, gerta liteke erantzukizunen bat izatea hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean datu faltsuak azaltzeagatik. Kasu horretan, korporazioko alkate-udalburuak proposamena egingo du hauek izendatzeko: hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituztenak, baldin eta sartzen badira balioegabetze horren ondorioz eskaintako plazen kopuruaren barruan.

Bederatzigarrena. — *Praktikaldia eta izendapena*

Praktikaldia hautaketa-prozeduraren beste fase bat izango da, eta lehiaketa-oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duten izangaiak iritsiko dira praktikaldi horretara; izangaion kopurua, berriz, ezin da izan deialdiko plazen kopurua baino handiagoa. Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak erabakiko du zein arlotan gauzatu behar den fase hori; gehienez sei hilabete iraungo du praktikaldiak, eta sasoz iragarriko dira datak.

Ebaluazio-prozedura jarraitua izango da praktikaldian zehar; aldi horretan, hamabost egun natural baino gehiagoko absentzia justifikatuak daudenean, praktikaldia geldiarazi egingo da; absentziok bakanak izan daitezke edo metatutakoak. Kasu horretan, ukitua den pertsonak osatu egin beharko du ezarritako epe osoa.

Izendatzen diren izangaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira, eta eskubidea izango dute udal-langileen ordainsariak arautzen dituen akordioan ezarritako ordainsariak jasotzeko; era berean, alta emango zaie funtzionarioei dagokien Gizarte Segurantzako araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen-ebazpenean adierazitako egunetik hasi eta plaza jabetzan hartu arte, edo praktikaldian deskalifikatu arte.

Izangaia gai edo ez gai kalifikatuko da, eta beharrezkoa izango da gai kalifikazioa lortzea hautaketa-prozedurako fase hau gainditzeko.

Praktikaldi horretan zehar, deialdiko plazako eginkizunak eta atazak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak ebaluatuko dira, bai ezagutza teknikoen aplikazioaren ikuspegitik, bai lan-ahalmenaren, erantzukizunaren eta ekimenen ikuspegitik, bai izangaiak lantaldeetan integratzeko duen gaitasunaren ikuspegitik, bai izangaiak barruko eta kanpoko harremanetan bere burua moldatzeko duen gaitasunaren ikuspegitik.

Praktikaldia amaituta, praktikak egiten diren arloko zuzendariak izangai bakoitzaren gaitasunari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du, eta bere ustez behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez adieraziko du. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio, eta hark, txostenok azterturik, praktiketako fasea gainditu duten ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, praktikaldia gainditu duten izangaiak izendatzeko proposamena egingo dio alkate udalburuari.

Izangaien izendapena praktikaldiko edozein unetan deusezta daiteke, baldin eta izangaiak ez badu gaitasun edo aprobetxamendu egokirik; horrela denean, arloko zuzendariak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari, eta hark, proposamena aztertuta, izendapena deuseztatzen duen ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, berak hartutako proposamena bidaliko dio alkate udalburuari.

**Hamargarrena. — Behin betiko izendapena**

Behin betiko kalifikazioa eta izangaien lehentasun-hurrenkera ateratzeko, oposizio-faseko puntuazioari lehiaketako puntuazioa gehituko zaio; hala ere, izangaiak izendatzeko ezinbestekoa izango da izangaioi praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udaltxeko iragarki-taulan eta udalaren web-orrian argitaratuko dira: <https://ope.bilbao.eus>.

Hamaikagarrena. — Plazaz jabetzea

Udaleko organo eskudunak proposamena onetsi ondoren, izendatutako izangaiek plazaz jabetu beharko dute, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onetsi zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen den betekizuna bete behar dute; horretarako, hogeita hamar eguneko epea dute, izendapena jakinarazten zaien egunetik aurrera.

Ezarritako epearen barruan eta justifikatzeko moduko arrazoirik gabe plazaz jabetzen ez direnak utziliar gisa geratuko dira, karguari uko egin diotela ulertuko da, eta euren eskubide guztiak galduko dituzte. Kasu horretan, korporazioko alkate-udalburuak praktikaldiko izendapen bat proposatuko du oposizioko ariketak gainditurik eta oposizio-faseko eta lehiaketa-faseko puntuazioa baturik baloraziorik onena lortu duten izangaien alde, uko horren ondorioz bete gabe geratu diren plazen kopuruan sartzeko, eta, betiere, oinarri hauetako zazpigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

Baldin eta karrerako funtzionario izendatutako pertsonak lanpostua gordetzeko esku-biderik gabe eszedentzia eskatzen badute plazaz jabetzean, haiek hutsik uzten dituzten lanpostuak adjudikatu ahal izango dira. Ondore horretarako, epaimahai kalifikatzaileak karrerako funtzionarioak izendatzeko egindako proposamen osagarria erabiliko da.

Hamabigarrena. — Aurka egiteko bideak

Oinarri hauen aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, zeina aukerakoa baita, Bilboko Uriko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, edo artez jo daiteke oinarriaren aurka administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean; kasu batean zein bestean, epea hasiko da kontatzen oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**I. ERANSKINA****I. ZATIA****ZATI OROKORRA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio orokorrak. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak.
2. gaia: Euskal Herriaren Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legeak garatu eta betearaztekoak, eta betearaztekoak.
3. gaia: Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrien udal-antolaketa (Toki Araubi-dearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. titulua).
4. gaia: Bilboko Udalaren antolaketa. Erregelamendu organikoak.
5. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoa.
6. gaia: Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea.
7. gaia: Datuen babesa: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak babestekoa eta Eskubide Digitalak bermatzekoa.
8. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea. Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Aukera Berdintasunerako Bilboko Udalaren V. Plana.

II. ZATIA**ZATI ESPEZIFIKOA**

9. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. I. Titulua (Prozeduran interesdun direnak): I. Kapitulum (Jarduteko gaitasuna eta interesdun kontzeptua) eta II. Kapitulum (Administrazio-prozeduran interesdunek beren burua identifikatzea eta sinatzea).
10. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. II. Titulua (Administrazio publikoen jardura): I. Kapitulum (Jarduketa-arau orokorrak).
11. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. II. Titulua (Administrazio publikoen jardura): II. Kapitulum (Epe-mugak eta epeak).
12. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. III. Titulua (Administrazio-egintzak): I. Kapitulum (Administrazio-egintzen betekizunak), II. Kapitulum (Egintzen efikazia) eta III. Kapitulum (Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna).
13. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. Titulua (Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak): I. Kapitulum (Prozeduraren bermeak), II. Kapitulum (Prozeduraren hasiera) eta III. Kapitulum (Prozeduraren antolamendua).
14. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. Titulua (Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak): IV. Kapitulum (Prozeduraren instrukzioa) eta V. Kapitulum (Prozedura amaitzea).
15. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. Titulua (Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak): VI. Kapitulum (Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua) eta VII. Kapitulum (Ebazpenak betearaztea).



16. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: V. Titulua (Egintzak administrazio-bidetik berrikustea).

17. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko Titulua (Xedapen orokorrak, sektore publikoaren jarduketa-printzipioak eta funtzionamendua): III. Kapituluua (Zehatzeko ahalaren printzipioak).

18. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko Titulua (Xedapen orokorrak, sektore publikoaren jarduketa-printzipioak eta funtzionamendua): IV. Kapituluua (Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna).

19. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko Titulua (Xedapen orokorrak, sektore publikoaren jarduketa-printzipioak eta funtzionamendua): V. Kapituluua (Sektore publikoaren funtzionamendu elektronikoa).

20. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena: III. Titulua (Eskubideak eta eginbeharrak. Enplegatu publikoen jokabide-kodea).

21. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. V. Titulua (Jar-duera profesionala antolatzea): I. Kapituluua (Giza baliabideen plangintza) eta II. Kapituluua (Enplegu publikoa egituratzea).

22. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. III. Titulua (Euskal administrazio publikoetako funtzionarioei buruz): I. Kapituluua (Erabaki Nagusiak), II. Kapituluua (Funtzionaritza lortzea eta galtzea) eta III. Kapituluua (Funtzionarioen Sailak).

23. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. III. Titulua (Euskal administrazio publikoetako funtzionarioei buruz): IV. Kapituluua (Administrazio-Karrera) eta V. Kapituluua (Administrazio egoerak).

24. gaia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. III. Titulua (Euskal administrazio publikoetako funtzionarioei buruz): VI. Kapituluua (Funtzionarioen Eskubideak eta Eginkizunak).

25. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen: I. Titulua (Xedapen orokorrak). 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: II. Titulua (Udalerrria eta gainerako euskal toki erakundeak).

26. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen: II. Titulua (Udalerrria). I. Kapituluua (Lurralde eta biztanleria): 15. Artikulutik 18. artikulura. 1690/1986 Errege Dekretua, Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua onartzen duena. II. Titulua (Biztanleria eta errolda): I. Kapituluua (Bizilagunak eta udal-errolda), II. Kapituluua (Udal-erroldaren kudeaketa) eta III. Kapituluua (Udal-erroldaren egiaztapena eta kontrola).

27. gaia: 33/2003 Legea, araroaren 3koa, Administrazio Publikoetako Ondarea arautzen duena: Atariko titulua (Xedapen orokorrak): I. Kapituluua (Xedea eta Aplikazio-eremua) eta II. Kapituluua (Administrazio Publikoaren Ondarea); II. Titulua (Ondarea babestea eta defendatzea): I. Kapituluua (Ondarea babesteko eta defendatzeko betebeharrak) eta V. Kapituluua (Ondare publikoak defendatzeko ahalmenak eta prerrogatibak): 1. Atala (Arau orokorrak).

28. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen: X. Titulua (Biztanle-kopuru handiko udalerrrien antolakuntzako araubidea). I. Kapituluua (Aplikazio-eremua) eta II. Kapituluua (Beharrezko udal-organoen antolakuntza eta jarduera): 121. artikulutik a 128. Artikulura.

29. gaia: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. Titulua (Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte hartzea): I. Kapituluua (Xedapen orokorrak) eta II. Kapituluua (Euskal autonomia erkidegoko toki-erakundeei publizitate aktiboaren arloan dituzten betebeharrak).

30. gaia: 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. Titulua (Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte hartzea): III.



Kapitulua (Informazio publikoa eskuratzeari buruzko printzipioak eta erreklamazio-organari).

31. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Atariko titulua, II. kapitulua (Sektore publikoko kontratuak): 1. atala (Kontratu motak zedarritzea) eta 2. atala (Erregulazio harmonizatuko kontratuak).

32. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Lehen liburua (Sektore publikoko kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak). III. titulua (Objektua, lizitazioaren oinarriko aurrekontua, balio zenbatesia, kontratuaren prezioa eta kontratuaren berrikuspena): I. kapitulua (Arau orokorrak).

33. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Bigarren liburua (Administrazio publikoen kontratuak), I. titulua (Xedapen orokorrak) I. kapitulua. (Administrazio publikoen kontratazioari buruzko jarduketak) 1. atala (Administrazio publikoen kontratuak prestatzea). 1. azpiatala (Kontratazio-espeditzea) eta 2. azpiatala (Administrazio-klausulen agiriak eta preskripzio teknikoaren agiriak): 116. artikulutik 124. artikulura.

34. gaia: 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa. III. Kapituluak (Jardunbidea): II. Sekzioa (Tramitazioa).

35. gaia: Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Araua: 5. artikulutik 6. artikulura eta 10. artikulutik 13. artikulura Bilboko Udaleko aurrekontu orokorreko Aurrekontua Betearazteko Arauak 2022: I.- Izaera eta eragin eremua eta V.- Gastuak burutzea.

36. gaia: Abenduaren 16ko 9/2005 Foru-Araua, Toki Ogasunei buruzkoa: 2. artikulutik 3. artikulura, 20. artikulutik 22. artikulura, 29. artikulutik 33. artikulura, 44. artikulua eta 50. Artikulua.

37. gaia: Bilboko Udaleko hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak: Sarrera, Xedea, Aplikazio-eremua, Zerbitzu-hizkuntzak, harreman-hizkuntzak eta lan-hizkuntzak. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpide orokorrak.

38. gaia: Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundearen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautuko dituen Ordenantza Orokorra: 1. artikulutik 5. Artikulura.

39. gaia: 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena. IV. Titulua (Administrazioarekiko auzien prozedura) I. Kapituluak (Lehen auzialdiko edo auzialdi bakarreko prozedura): 1. Atala (Aurretiazko eginbideak), 2. Atala (Errekurtsoa jartzea eta espeditzea erreklamazioa) eta 3. atala (Demandatuak epatzea eta errekurtsioa onartzea).

40. gaia: 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena: Atariko titulua (Xedapen orokorrak) eta III. Titulua (Espediente elektronikoa).

* Gai bakoitzerako, letra lodiz adierazten dira hura osatzen duten arauetatik ikasi beharreko atalak edo artikulak.



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

Onarpen eskabidea / Solicitud de admisión

1.- Deialdia / Convocatoria

Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: **ADMINISTRARI / ADMINISTRATIVA/O**

Sartzeko sistemak / Sistemas de acceso: Lehiaketa Concurso Oposizioa Oposición Oposizio-lehiaketa Concurso-oposición

Txanda / Turno: Askea / Libre Barne sustapena Promoción interna Desgaitasunen bat duten pertsonak Personas con discapacidad

2.- Norberaren datuak / Datos personales

Lehenengo abizena / Primer apellido		Bigarren abizena / Segundo apellido		Izena / Nombre	
NAN / AIZ / DNI / NIE:	Naziotasuna / Nacionalidad		Jaioteguna / Fecha de Nacimiento:		Sexua / Sexo E. / M. <input type="checkbox"/> G. / H. <input type="checkbox"/>
Telefono finkoa / Teléfono fijo		Telefono mugikorra / Teléfono móvil		Posta elektronikoa / Correo electrónico	

3.- Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

Helbidea / Dirección		Ataria / Portal	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Eskua / Mano	Atea / Puerta
PK / CP:	Herria / Localidad		Probintzia / Provincia		Herrialdea / País	

4.- Euskara / Euskera

Profila egiaztatzen dut (jarri "X" dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una "X" el correspondiente)

1 HE / PL1 2HE / PL2 3HE / PL3 4HE / PL4

Euskara azterketa egitea eskatzen dut / Solicito realizar examen de euskera

2HE / PL2

5.- Aukera ezazu oposizioaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición.

Euskara / Euskera Gaztelania / Castellano

6.- Betebeharrak / Requisitos

Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria:

Deialdian eskatutako beste dokumentu batzuk (gidabaimena eta bestelakoak) / Otros documentos exigidos (permiso de conducir, otros)

Tasak deialdiaren berariazko oinarrietan xedatutakoaren arabera ordainduko dira.

El abono de las tasas se hará de conformidad con lo dispuesto en las bases específicas de la convocatoria.



7.- Merituak / Méritos

Merituen zerrenda / Relación de méritos

Table with 10 rows for listing merits.

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarriko, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da. En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

8.- Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:

Table with 3 rows regarding contract list entry conditions.

Lege-informazioa / Información legal

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri "X" laukitxoan / Marque con una "X" en el recuadro

ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDALEKO ALKATE JAUN TXIT GORENA EXCELENTÍSIMO. SR. ALCALDE DE BILBAO

**Bilbao**UDALA
AYUNTAMIENTO**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, datuak babesteko indarrean dagoen araudian aurreikusitako ondorioetarako:

Bilboko Udaleko Kultura eta Gobernantza Saileko Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritza da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (helbidea: Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001 Bilbo).

Bilboko Udalean, Modernizazio Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo).

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira aplikagarriak diren arau-xedapenek hala inposatzen duten bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art. eta hurrengoak) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litekeen lan-poltsak kudeatzea denean.

Aurreko tratamenduetarako beharrezkoak diren datuak eman ezean, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litekeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimitaterik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

PROTECCIÓN DE DATOS

A los efectos previstos en la normativa vigente en materia de protección de datos, se le informa que:

El responsable del tratamiento de sus datos personales es la Dirección de Organización y Gestión de Recursos Humanos del Área de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao, situada en Plaza Venezuela, nº 2, 5ª planta, 48001 Bilbao.

La Delegada de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, nº 1, 5ª planta, 48007, Bilbao.

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultas del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras así lo impongan las disposiciones normativas aplicables.

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (art. 10 y siguientes).

De no facilitarse los datos necesarios para los anteriores tratamientos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, D.N.I, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.